

## Campeonato de bolos entre las Cofradías de Zeanuri

El próximo, 29 de septiembre, sábado, día de San Miguel, a partir de la 17:30 horas se disputará el Campeonato de Bolos de las Cofradías de Zeanuri, en la bolera de la Cofradía de Alzusta. Se trata de una competición que se celebra todos los años entre las 7 Cofradías que conforman el municipio: Alzua, Alzusta, Asterria, Iburguen, Ipiñaburu-Undurraga, Otzerinmendi y Uribe.

Este campeonato se disputa por equipos y cada uno de ellos lo conforman 4 *bolaris*.

Durante el verano se ha disputado la competición individual ganada por el *bolari* Alberto Zuluaga de la cofradía de Otzerinmendi.

Previo al campeonato, los niños y niñas de Zeanuri tendrán opción de conocer los pormenores de este deporte ancestral y tendrán la oportunidad de practicarlo.

### CAMPEONATO DE BOLOS entre LAS COFRADÍA DE ZEANURI

**Fecha y hora:** 29 de septiembre, sábado, a partir de las 17:30 horas.

**Lugar:** Bolera de Alzusta (Zeanuri).

**Premios:** 1º: 200 € y cena de dos chuletas de kilo y medio en el Restaurante KILOTERRDI (Hotel Ellauri)

2º 120 €

3º 10080 €

**Colaboradores:** Ayuntamiento de Zeanuri y Restaurante *Kiloterdi* del Hotel Ellauri

## Bola-jokoan neurtuko dira Zeanuriko kofradiak Alzustan San Migel egunean

Urri lehenengoaren 29an, San Miguel egunean, Alzustako bolatokian jokatuko da Zeanuriko kofradien arteko bola txapelketea. Udalerria osatzen daberen zazpi kofradietako ordezkariak izango dabe taldeka jokatzen dan txapelketa horretan parte hartzeko aukerea: Alzuak, Alzustak, Asterriak, Iburguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Uribek.

Taldea 4 bolarik osatuko dabe, bolari bakotzak 6 jaurtiketa egingo dauz, eta taldekide guztiak botatako txirloen batuketeta hartuko da kontuan; beraz, txirlo gehien botatzen dauan taldea izango da irabazlea eta bardinketa egongo balitz, *gerrea* jokatuko litzateke.

### Alberto Zuluagarentzat bakarkakoa

Aurtengo udan, bakarkako hiru txapelketa jokatuko dira Zeanuritan: Alzustan, San Juston eta San Lontzon eta toki bakotxean sailkatu ziran lehenengo hiru bolariak hartu eben parte Zeanuriko bakarkako txapelketan, San Lontzo bigarren egunean. Irabazlea, Alberto Zuluaga otzerinmenditarra izan zan eta bigarren eta hirugarren tokietan Inazio Goioaga eta Juantxo Otzerinjaruregi sailkatu ziran.

### **Bola jokoa desagertzeko arriskuan**

Bola jokoa Arratiako eta euskal kulturako beste hainbat gauza lez, desagertzeko arriskuan dagoala ikusiz, bultzakadaxoa emon gura deustoe antolatzaileak txapelketeari. Gaur egun bola jokoa udan eta auzune gitxi batzuetako jaietan bakarrik jokatzen da, gazteen parte hartze txikiagaz. Beraz, desagertzeko arrisku larrian dagoan kirol herrikoi honen biziraupena eta gazteak erakartzea bilatzen dabe antolatzaileak. Juantxo Ozerinjauregik, antolatzaileen ordezkariak dinoanez, “aurten be umeentzat txapelketea antolatu gura dogu, eta umeen taldeak osatzeko ahalegin bat egin behar dogu, ia animatzen diran eta gure-gurea dan kirol bateri, boleari, ez deustogun desagertzen ixten”. Horretarako, kofradien arteko txapelketea hasi aurretik, umei bolan jokatzeke eta kirol hau ezagutzeko aukerea eskainiko jake.

### **Babeslea eta laguntzailea**

Kofradien arteko txapelketa hau antolatzea ezinezkoa izango litzateke erakunde eta enpresa pribatuen laguntza barik, eta Zeanuriko Udalaren babesla eta Alzusteko kofradiaren eta Alzustan bertan dagoan Ellauri Hoteleko *Kiloterdi Txokoaren* laguntzea izango dau.

Sariak honako honeek izango dira: talde irabazleak 200€ eta kilo eta erdiko bi txuleta bere osagarriakaz bakaltzeko edo afaltzeko aukerea izango dau *Kiloterdi Txokoan*, Ellauri hotelaren jatetxean. 2. saria: 120 €koa izango da eta 3.a 100 €koa. 2017an Ibargueneko taldeak jantzi eban txapela.

Beraz *eskuzuloak, txorra, sinka, hirukoa, txakile, zubile, txirloa, arrapea...* eta bola-jokoagaz zerikusia daukien beste berba batzuk entzuteko aukerea izango da Alzustako bolatokian urria lehenengoaren 29an, arrastiko 17:30etik aurrera.